

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Nire sabela ez da kreaturen hilobi

ERROMA, K.O. 161. Marco Aurelio enperadore izendatu zuten. Gauza asko aldatu ziren gortean enperadore filosofoak; baita sukaldea ere. Aurretik aginte goren eskuan izan zutenek ez bezala, Marco Aureliok asko zaintzen zuen elikadura; hain ohikoak ziren gehiegikeriei muzin egin zien eta bereziki entsaladak eta fruta maite zituen. Begetarianoa zen. Baina ez zen lehena.

Antzinako Egipton Amenhotep III.aren emazte Tiye ez zuen animaliarik jan nahi eta gainera fruta jatea gatzetasuna eta libidoarentzat ezin hobe zela uste zuen.

Asisko San Frantziskok, Tiye bezala, animaliak maite zituen, eta ez zituen jan nahi. Beste santu batzuek ere bide beretik jo zuten, Santa Klarak eta Santa Agedak okela jateari uko egin zioten, haragiaren "beste" plazerekin batera.

Erdi Aroan, dieta begetarianoa moda baino halabeharra zen nekazari-erantz. Haragia jauntxo feudalek izaten zen eta horietako askok, gainera, ez zuten barazkirik jaten iraingarria zelako beraien ustez. Halere Sardinako Leonor Arborearen dieta leke osatzen zuten nagusiki, txerria hiltzen ikusi zuenetik okelik ez jatea erabaki baitzuen. Indiako Akbar erregeak ez zuen inolaz ere haragirik jan nahi. Noblezia-kide batek ohitura horren arrazoiak galdetu zioenean, Akbarrek halaxe erantzun zion: "Ez nintzateke lasai hilko, nire sabela hainbeste maite dut dan Jainkoaren kreaturen hilobi balitz".

Torquemada inkisidorea ere barazki-jale bihurtu zen, baina haren arrazoiak Akbarrenak baino praktikagoak ziren. Torquemadak ederki zekien pozoia haragitan sartzea errazagoa

zela, entsaladan ipintzea baino, eta etsairik ez zitzaionez falta, pozoitua hiltzea zen inkisidorearen beldur handiena. Edo agian, nahiago zuen giza-haragi errearen usaina, animalia erreena baino.

Percy B. eta Mary Shelley senar-emazte idazleek ez zuten ez okelik, ez arrautzarik, ez esnekirik hartzen eta behin baino gehiagotan Lord Byron lagunak bikotearen aholkuak kontuan hartuta haragirik gabeko dieta egin zuen. Idazleen artean jarraituz, Leon Tolstoi ere barazki-jalea zen. Florence Nightingalek okela jaten zuen Krimeako Gerrara erizain moduan joan baino lehen. han ikusitakoak ikusita, ez zuen bere bizitza luze eta oparoan berriro okelik dastatu. Bismarck, Disraeli eta Gladstone bere hiru katuak ere barazki-jale egin zitezen saiatu zen; alferrik. Henri Dunant Gurutze Gorriko sortzailearekin arrakasta handiagoa izan zuen; Nightingalen ereduari jarraituz, soilik barazkiak eta fruta jatea erabaki zuen suitzarrak.

Halaber, Elizabeth Austriako enperatriza, Sissi ezizenaz ezagunagoa, begetarianoa zen. Baina haren elikadura ohiturak ez ziren batere eredugarriak, anorexia izan baitzuen urte luzez.

Aldizkako barazki-jaleak ere baziren. Isadora Duncan dantzari estatubatuarra eta Kamala Napurdalah idazle indiarrek tarteka dieta begetariano zorrotzak egiten zituzten. Ho Chi Mihni ere kosta egiten zitzaion barazkiekin bakarrik konformatzea. Behin izkira platerkada ipini zioten mahaian, eta Vietnamgo presidenteak den-dena jan zuela, urdailaren kalterako. Zahartzarotan begetarianismoa utzi zuen, pixkanaka itsaskiak eta oilaskoa sartuz dietan. ■



Marco Aureliok, Tolstoi, Sissik eta Ho Chi Minhek okela jateari uko egin zioten.

ARRASTOAK



Asterixen abenturen 33. zenbakia.

80 urte beteta, Uderzok 34.a egiteko asmoa agertu du berriki.

ASTERIX GEHIAGO. René Goscinny hil zenetik 30 urte bete direnean eta Albert Uderzok 80 urte bete ditenean, bere lankide eta alaba Sylvie zera esan berri du: "Asterixen album berri bat egin nahi du; ez dakit noiz, baina laster izango da".

2006an *Le ciel lui tombe sur la tête* kaleratu zen, orain arte bildumaren azken alea. Uderzoren asmoak betetzen badira, hurrengo Asterixen 34. abentura izango da.

Sylvie Uderzok Bartzelonako Nazioarteko Komiki Azokan baieztatu du berria. Azokan bertan Uderzoren omenezko albuma aurkeztu zuten. Bertan, 30 komikilarik —besteak beste, Forges, Midam edo Bouck— Asterixen eta bere egilearen inguruko lanak bildu dituzte. Liburuak 60 orrialde ditu eta Lucky Luke edo Spirou pertsoanaia ezagunen sartu-irteak topa daitezke.